# 13
# WHATSAPP

o—84 13.1 ZER DA WHATSAPP?
o—84 13.2 KONFIGURAZIOA ETA ESKAERAK

# WHATSAPP




## 13.1 Zer da Whatsapp?

WhatsApp Messenger plataforma anitzeko berehalako mezularitza aplikazio bat da, SMS motako mezuak dohainik bidaltzeko eta jasotzeko aukera ematen duena, telefono mugikorreko Interneteko konexioa erabiliz. WhatsApp erabilgarri dago honako hauentzat: iPhone, BlackBerry, Windows Phone eta Android.

WhatsApp-en taldeak sor daitezke, gehienez 100 pertsonakoak, eta taldekideek elkarri nahi adina irudi, bideo eta audio mezu bidaltzeko aukera ematen du.

## 13.2 Konfigurazioa eta eskaerak

Whatsapp telefono mugikorrean instalatzen denez, eta hauek pertsonalak izaten direnez, gida honen lehenengo kapituluan ezarritakoa betez, Whatsapp-a helburu akademikoekin erabiliz gero, irudi korporatiboa erabiltzea gomendatzen da.